

# SANTIAGO AIZARNA-ri bereak itzultzen

Santiago:

Gabriel Aresti zenak idatzitakoa dudan jartzen ez baduzu ere eta hildakoarentzat hitzik esan nahi ez, argitasunerako hara hor bere letra. Inork ez dezan pentsa nik ezer asmatu dutanik.

Bilboan, 1968. Abenduak 16.

Juan San Martin

Ubarrena

Ure lagun maitea:

Ure hantur diat. Gorka jak lehenago ure oler-bilduma bitali y baderauat. Uonekin batean doavik.

Aste alaitzen nauk, hortik, estranjeriatik, euskal poesia hedatzeko egiten dituan abeginak gatik. Ikala eta guztiz ere, eta y modestiagatik, ure yent y diat hortik nahasturik ikuri nahi. Badukadan gauzarik maiteena duk eta Poesia Iliopara-rako egun ditun selezioarekin y natzeget konfor-me. Work bere poeta-kideak hautatzeko ekulude aso dik, eta ate falsotik sartu den horuekin y diat oleritzko har-emanik yan nahi. Mesedez ibatziko derauak idzular-koei hortik ure yena erutzeko. Eta K. Zeteren bostertgarkein ere y natzeget ador. Mesedez "Si la pildora..."-tik ere desazertzea nahi ruke. Izumen deraudet mesedea?

Nere aldetik ez bai nuen inolazko iritzirik agertu zure poemaren kontra; bai ordea gure artean poeziagintzan agertzearen poza. Euskal idazleon artean ez baita inor sobra. Antologia hartarako zer bide erabili zenuen, neri bost axola. G. Arestik bere *Antologia laburra* igortzean bidali zidan gutunean jartzen zuena transkribatu eta adierazi baizik ez nuen egin *Egan*-en. Ez zenik edo bestelakorik ez nuen jarri. Gezurra onartu nuela? Hark bere iritzia izango zituen, baina nik ez nion eman inolazko onezpenik. Zerorren gaizki ulertze bat ez ote? Asmakinunen bat ez bada behintzat. (Ikus *Egan*, 1982, 16. orr.).

Hori horrela delarik, ez irainik eta ez laudoriorik ez dut zertan jaso. Bestela, nerea ez dena jasotzeaz zordun nintzake. Eta, zorretan gelditu ez nadin, zureak zeuri igortzen dizkitzut. Tori:

«Ate paltsoetik ibiltzen dena zu izango zarela eta petralkeriak esaten dituana ere bai; ... Pozoi-ontzi ttiki bat besterik ez ba zera jakingo dezu noski nun ustu bear dituzun zure ur-zikiñ oiek iñor maxiatzera etorri gabe».

Eta abar. Zikinkerioak erori zaizkitzu eta zureak direnez zerorri itzultzen dizkitzut.

*Juan SAN MARTIN*